# Dominica 2.ª de Cuaresma.

Etzan contentadu Jesu xpto gure Jauna Ceruco gloria guizonai ezquintziaz, ezpada gloria onen ezaguerazoren bat emon guira izan eusten, animatu citecen, bere mandamentu santubac obeto gordetzera. Onetaraco, dio gauric Evangelio Santubac, eraan citubala Taborco mendira bere irur discipulu, Pedro Juan ta Diego, eta aguertu jaten gloriaz inguraturic alaco modubam, ece bere arpeguia gueldituzan eguzquia baño ederra goa, ta bere soñecoac edurra baño Zuriagoac. Ezta mundubam bein ere icusi aimbeste gloria ta edertasun. Icaraturic Sn. Pedro icuzgarri agaz, pozez zoraturic, cer esaten eben ezequiala, verba eguinEutzan Jesu xptori modu onetan. Jauna, gauza ona izango litzateque, gu beti emen vicitzea, gura badozu, eguin daigun emen irur tabernaculo, edo vici lecu; baña Jesu xptoc ez eutzan erantzun Sn. Pedroren escavideari, cegaitic etzan posible, bere Maisuari glorian laguntcea, pena eta traba jnetan lenago lagundu gabe. Jesu xptoc Taborco mendian bere discipuluai aguertu eusten gloria, izan zan Cerubam guztientzat prestaturic daucan gloriaren imagina, edo figura bat. Errazoe onegaiti verba eguin neiguian nic orain gloria onen anditasunaren gañean movidu zaitien deseatcera, baña obeto deritzat beste gauza baten consideracioa zuben eguitea.

Guztioc daquizube mendi altu baten puntara igoteco, gura ta gurez paratu bear dirala bitartean arquitcen diran aldapac, ta nequeac; onela bada ceruraa igoteco, sufritu bear dira.

erremedio gabe, viciza onetaco miseriac eurequin ecarri daiquien aldapac, ta gorgotasunac. ona bertan aguerturic gaur aguirian ifinico ~~[illegible]~~ deutzubedan materia.

Ascotan aditu dozuben eguia da; N.C. Ceruraco bidea dala chit nequetzua, ta onela igoteco, vici bear dogula crucificaturic munduaz, ta apetitu gustiaquin. Au da duda baguebo egui bat, ta liburu Sagraduetaco toqui ascotan iracutten dana. Bacarric Jesu-christogaz reinatu daiquee, dio Sn. Pabloc, Jesu-christogaitic mundu onetan sufritu ta padecitten davenac. Maisu divinoari jarraituco deutzanac, dio Sn. Lucas Evangelistiac, bere curzia eroan beardau. Cein gloriaz coroatuco dira mundu onetaco pena ta naigabeac eroaten eztaquienac. Oneec dira, nere Christauac, liburu Sagraduetan irasten diran itzcundeac; beraz eztago cer pensatu, Gloriaco mendi Zorisneco artara igoteric, necatu ta asco padeciduta baño. Ta eztozube cer icaratu: cegaitic baldin, Sn. Lucasec dioanez, conveni bazan, Jesu-christoc Ceruan sartceco, aimberte padecitcea? ezta erazoia izango, Maisu ain onaren disciplulutzat preciatcen garianoc, onela padecitcea, jarraitcen dituguala bere pausoac, bein ere acabatuco eztan Zoriontasunean bere lagunac izateco? Desengañau gaitecen, gorputz baten miembroac buruaz conformatu bear dira, ta gure buru Jesu-christoc aimberte costata Ceruco atiac irigui euscun ezquero, erazoia baño gueiago da, gue viciza onetaco pena ta trabajubetan beragaz conformatcea. Eta eguiaz, N.C. mundu onetan asco padeciduta ere, ezjacu meredenic asco eguiten? Cer dira mundu acabacor onetaco, pena ta tormentu gustiac

eternidade bategaz comparatuta? emengo trabajubai beguiratcen bajate porfutz ustelcoz onen beguiaquin, eztago dudaric, enechi cojacula chit andian, eguiaz dinan leguez gure argaltarunari beguiratuta; baña fedianen beguiaquin beguiratcen bajate; cer dina? egui au ezagutceco ifini eguizube balanza batean alde batetic Jaincoagaitic eguin ta sufritcen dozubena, ta beste aldetic Jaincoac negue oneen alde zuentzat prestaturic daucan premioac; ya topetan dozuben oneen artian batac bestiari dinudian gauzaric! eztozube topauco desberdintarun andibat besteric. entzun eguizube S.n Pabloc erromacoai escriwitu eusten carta baten, cer esaten eusten. Apostolu Santu onec gentiai evangelioa predicatu eusten aguertcen eustela Jesuchristoren icen santuba; onetaraco videtan cembat izago ete eban Jesuchristogaiti! cembat bere gogoaz contraco gauza puestatu ez jacon! cembat gau galdu ete itubau! Nore pordenau daigue, cembat peligru paratu citubau lurrez eta icharoz, Ciuda de ta desiertuetan, bestarren ta campocotarren aldetic, lapu rren ta bere Anaen partetic! Nun aguertu etzan bere celo inararria, cerren eguiac predicatcen eustela Principe ta mendecoai, andi ta chiguiai! Puntu oro sufritu bear izan ituan Juecen aurrean alzatcen eutcen testimonio guzindiac. onegaz gañera argan arguit cen ciran pensa alditeguian virtute genero gustiac; cer Jaincoa ganaco amorioa! cer munduco gauza gustien desprecioa! Nolaco pobreza, edo ecenertaruna, ez bacarric viotzecoa, baita ere eguiaz coa edo izatezcoa. verba baten: ecin argui diteque Apostolu Santu onec baña erraruc, ta confianza gueiagogaz bere neque ta virtute gustien premioa Jaincoaganic espera eiguianic; eta ala ere baquizube cer esaten eban? Nere obra on gustiac, nere

vicico neque ta trabajuac ecin sartu ditesque comparacioan, oneen aldeo espera doan betico descansu ta zoriontasunaz; Cegaiti mundu onetan sufritu ta izaten dogun guztia da paracorra, ta erraza, ta onen ondoren izango dogun alleguintasuna izango da eternidade batecoa. Bai N. C. dichanic aso izango da guretzat, mundu onetan padecitcea. Poztu ta alegra zaitece, esaten deutsu Jesuscristoc, mundu onetaco pena ta trabaju gustien artian, oneic guztioc iraupen laburrecoac dira eta oneen premioa ugaria da Ceruetan! Erazue onegaz valiatu zan Sn Pedro, lengo fededun edo fielac animatceco, sufritceco pozez mundu onetaco pena ta trabajubac, sarri asco guertatu oi diranac. Pusca bat padecitcea, deitcen deutzo, mundu onetan padecitu daiquegun gustiari. Gauza bearra da, pusca bat padecitcea, ta pusca onegaiti logratuco dogu eternidadeco descansuba, cein dan gure vocacio, termino edo azquena. onela verba eguiten eutsen Sn Pedroc lengo christianbai; oneic onela izanic, nor animatuco ezta, emengo pena ta trabajubac Jesuscristoren icenian eroatena? Guizonarc viciza eternidadeaz comparatuta ezta besteric instante bat baño. Nor erreparatuco dan bada padecitcean instante bat, beguiac ichi ireqini batean (onela esateco) gañerraco dempora guztian bere gustana viciteagaiti? ezta bada Zoraqueria, bere gogo ta apetitoai gustoa dempora pusca batean emoteagaitic, beti iraun go dauben ondasun parebaguerac galtceco peligroan bere burua paratcea? Eta oraindio gueiago esango deutzubet sufritu bear dituguzala mundu onetaco naigabeac guztoz eta poz andiaz. Pecatari bateri desgraciarenbat guertatcen jacanian, quescatcen da, murmuratcen dau, eta asarratcen da; baña cegaitic? Cegaitic da, pensatcen eztaben, emengo desgraciac utsac ta ecerezac dirala, bear leguez eroanda, oientzat señalaturic dagoan premioa;

Baña ez jat onelacoric guertatcen, Jaincoac emengo nequeen ondo
ren eguinic daucan promesac consideratcen dituben arên contra:
poza betetcen da, desgraciaren baten bidez Jaincoac visitatcen dauo
nian, alegratcen dira Apostoluben imitacinoza, cegaitic izan dirian
Jesu Christoren izenian padecitceco. Gue, esaten dau Sn Pabloc, gusto
ta atseguintasun andia billatcen dogu munduco persecucioetan.
Nic, aurrera seguitcen dau, neure indar guztiac topetan ditut cur
cean eta enfermedadetan: Neure titulo ta icenic honrrazubena
da Jesu Christoren icenian carcela ta calabozoetan prisionero ego
tea. Nic gusto ta contentu gueiago topatcen dot nere carcelan,
nere grillutan, ta persecucioetan, nere perseguitzalleac euren
libertadean, euren atseguintasun, eta conveniencietan baño.
onela verba eguiten eben Sn Pabloc consideratuaic, cier guztien
alde recivituco eben premio edo saria. Bai N.C. onen exemploac
movidu bear gaitu voluntate oso batez mundu onetaco gaitzac
eroatera. Edocein desgracia edocein naigabe guerta daquiguila
mundu onetan vici garian bitartean, deitu bear deutzagu Jain
coari, lenago Tobias zarrac bere Semia icusita deitu eutzan le
guez! oh! Israelgo Jaincoa, nic bedeincatcen zaitut, nic amatcen
zaut, adoratcen zaut, zuc castigatu nazu, quentcen deustazu
la vegietaco vista, ta nere Seme maitearen presencia; baña
orain sentitcen dodan gustoa da compararic bagueco a, nere
lenagoco naibagueac emoten eustan sentimentua baño: biurtu
deustazu vista, ta lenengo ecusten dodan gauza, da nere Seme
maitea: naigabetu nazu, ta guero consolatu naizu. Eta
orain, baia, N.C. Tobiasen pozua trabajuben oricoren bere
Semea icusita alacoa bazan; cer dauco cer icusic mundu

co neque, ta trabajuben ondoren Jaincoac equingo deutcun recom
pensiaz? ho! eta cein ondo ezagutu euben euren nequeen-Corona
ya exrecibitu daubenac, ceín Laburrac diran neque ta penac
guztiac. Cer eguin ez euben, cer padecitu ez euben, cerucco
Corona ori irabasteco? Lenengo Jaincoaren Legue Santua lealquiro
gorde euben, tentacinoric gogorrenac cetozquien leguez, urrezgandic
botatcen cituben; Jaincoa ofenditceco ocasinoic peligrosoenetatic
alde eguin euben, euren inclinacio ta pasio chax guztiac leguear
conforme paratu cituben, aberastasunaren erdian conservatu
euben pobrezaco espiritua, anditasunen erdian humiltasunecoa,
gusto ta conveniencien erdian mortificacioa, ta munduaren
erdian erretiroco, ta bacartasuneco espiritua. Da esatea:
eguin eubela penitencia, euqui eubela paciencia eta caridadea:
consolatu citubela Pobreac, amadu laguin proximoa, parcatu eusten
euren etsaiai, eta gaizquilleai; verba baten cumplitu euben
Jaincoaren Legueco obligacio general ta particular guztiaquin.
Eta uste dozube N, C. onegaz santubac eguin eubela bian baño
gueiago, edo Jaincoagandic euren animen salvacioco dicha
errecibitceco? ez N, C. edo bestela itandu eguiezube santuai
euzai, eta erantzungo deutzube eciñala izan eceztaco ser
vitcen ez euben cristau batzuc baño; ezpatela ecercho ere zan,
eta contatcen eubela bacarric Jaincoaren misericordiaz, ceñen
piedadeai corroatcen duan, dio S.n Agustinec, ez aimbeste gure
merecimentubac, nola bere doi divinoac. onegaz gañera, etci
zan contentadu santubac mandamentuac gordetceaz; ezpada
eguin euben alegaina Jesu-cristoc bere Evangelioan ifintcen deu
cun consejo guztien frutua ere jasotceco. Yzuli eguizube ins
tante baten beguiac Egiptoco desiertuetara; consideratu eguizube
Thebaidaco ermitau famatu aiec; jarraitu eguiezue ango

aitzen cabuzaño, billatu eguizube ango zulo, ta leizen gogor tormentan. Ca guizonac edo Ainguerubac dizan? Beti erre gutcen lonic cari eguin gabe, beti baru eguiten, beti mortificat cen, beti euren gorputzai gueran cruel bat eguiten, eta ala ere erantzungo deutzube, eta guztien icenian erantzuten deutzube Sn Juan Climacoc, guze gorputzac modu onetan mortificatuta ere, eta gueure vici guztia soledadean iragota ere, dicha andicoac izango guinateque Jaincoaren escogidubac izatea zzen. onela pensatcen euben bacantasunean vici cinan Penitente Santu oneic, eta modu onetan pensatu ere daube aimberte Justuc munduaren erdian

Eta cer izacuten deuscube Elizar guerrari edo militan teco Martiri Santuac? Cer armatu ez euben tiranu guztiac Martiri Santuac atormentatceco? Eta ala ere etcituan tor menturic gogorrenac ere icaratu; ordubari egoten cinan se cula baño aleguerago, eta ala Sn Estevanec, icustean alde guztietatic arriac tiratcen eutcela, ta ondatu gura eubela, etceben pensatcen bere gaizquillo, ta enemigoacgaiti erregut cear baño. Sn Andresec maitatcen eben curcia bere gusto ta atzeguintasun guztiac, onetan anguitcen cituanac legues. Sn Lorenzoc bere verdugoai esan eutsen su-garrac bere gorputzaren alde erdi bata erre ebela, eta izuli eguiela beste aldera, erre cedin beste alde erdia. Baña Jauna! nundic euquen oneic onemberte animo? Beguiratcen eutcen euren Capitan Jesuxtoni, cenec aurrean ifinteen eusten, escubetan ecarren coroac, ta oneen vistan, tormentubetan pena artu bearrean, sentitcen euben euren barrubetan gus

to ta gozotasun miñaganí bat, tormentuben arpian egocenac
eurac deadar eguitexaño, Sn Agustinec dioanez; ara emen erre
eguizu, ebagui eguizu, verdiguban dei eguiten eusten; ez eguiozube
parcatu gure gorputz ustelcor oni, lurpusca bat dan oni, baldin
gure miseriac, gure argaltasunac modu onetan Jaincoac parcat
cen badeusca. Ona emen N. C. nola pensatcen euben Santubac;
ona ceiñ gauza guchian euquen mundu onetaco neque guztiac
gueroco premioaz comparatuta. Orain, bada, Santubac gu laco
guizonac cinan, ta aimbeste trabajuben ondoren bildur baitinan
logratuco ete euben Ceruco erreinuba? Nola gue, limosna labur
bat eguinaz, oracioren batzuc gaizqui errezadubaz, azquenic
vici modu ain zabal ta arpelaren ondoren, nola pensatuco dogu
Ceruna igotea, eta han escogiduben artean ecer lecu izatea? Cris
tandadeco leguiac beti izan dira eta izango dira batzuc, eztago
onetan personaren distincioric, modu baten Templac aguintcen
deutzo batari ta besteari; berac, baldin santuac Ceruban sart
ceco aimbeste necatu ta sufritu beuben, eta ala ere guchi erochi
beutcen, gue ere gure aldetic jarraitu bear ditugu euren pausoac,
aiec leguez betico zoriontsuac izan gura badogu. Baña cer da
dempora onetan ecusten dana? Ukenturaz zuben vici moduba
da Santubac mundu onetan eguin eubena? Ojala onela baliz;
baña esperiencia egunerocoac eracusten deuscu contrara: Puntu
ban bein Jaincoaren Ministroac contuban ifinten zaube, eguin
daguizubela alegueña Ceruna igoteco; mortificatu zaitecela San
tubac leguez, eguin deguiozubela guerra vici bat inclinacio
gaiztoai: Baña; oce dificultadeac edo neque andiac izaten
dira onetaraco! Ce aichaquiac armatcen dira! Batzuc

batera cer esanic estauque luxuriaren ta beste vicio arcoren ga
noan; baña cer importa da, baldin amatcen ezpadaube euren
proximoa? Baldin mortificatcen ezpadaube euren min ma
danicatu ta murmuratzallea? Onei guentatcen jata, Sn
Mateoren Evangelioan iracuntcen dogun guizon gazteari
guentatu jacona. Onec bada itandu eutzan Jesuscristori, cer
eguin bear eben bere anima salvatceco, ta aditunic Jesuscristoc
esan eutzana, erantzun eutzan; Jauna, ori guztia cumplidu
dot, baña barriz Maisu Divinoac esan eutzanian; Zoaz, ta
saldu eguizu dituzun ondasunac, emon eguiozu Pobreai, ta
jarraitu eguidazu; berba onec bacarric tristuraz bete eben,
ta onegaz andic apartatu zan; Cer importa dau, bada, casto
ta garbia izatea; lapurretaric ez eguitea, ta beste onelaco gaūe
za zuri aguintcen jatzunac eguiten ezpadituzu? Jaincoa ser
vitu bear dogu osoro, ta Santuac servitu eben leguez, ta onela
eguiten estabenac, eztauco cer esperatu aequin parte izateric.
Baña! o desgracia guizonic gusienen artean guentatcen dana!
Yzanic gure animen salvacioco lana ta eguitecoa, eguitecoric prin
cipalena, ala ere ori beguiratcen jaco guztien artean despreciapa
riena ta azquenecoari leguez. Posible da, Pecataria, zure
animaz ain caro ta aprecio guchi eguitea? Certaraco emon
eutzun Jaincoac Anima; ezpada emen servitcen dozula,
bestean eternidade guztian gozatu daguizun? Cegaitic, bada,
deveras, eta viotzetic servitcen estozu? etzaitela enganatu
N.C. ixiqui eguizube animaco beguioc, zuben oraingoinoco
faltoc ezagutzeco. Entzun dozube, Cerura igoteco, gura ta

guzez sufritu ta irago bear dizala pena ta trabajubac. ai zaite ce, bada, bertatic vicitza barri bat eguitera, jarraitcen deuzte zu bela aimberte penitenteen pausoai, euren laguna Ceruban izateco. Ezta bada arraroa, santuac ibilli izan videtatic guere ibiltcea? Guztioc ichi gueben Bautismo Santuban munduba bere pompa, ta vanidadiaquin, ichi gueben aragiia bere gusto guztiaquin, ta obligatu guinan vicitzera ez bere deisen erara, ezpada castigat cera, ecitcera, ta crucificatcera; ichi ta renunciadu gueben Satanas bere malicia, ta engañu guztiaquin. Nor bada izango da, munduco interes, edo diversino bit batzuc gaiti, cumpliduco eztitubana, modu onetan aguinduzico promesac? o guizonen ichumen tristea, bear leguez bein ere esplicatuco eztana! Ea, bada C, sobra da ya pecaturic. Ceruraco criatuba zara, ta pensamentu onec izan bear dau zure atencio ta ocupacio principalac, edo obeto esateco zure atencio ta ocupacio guztiac. Orainguino beste edocein gauzari leguez beguiratu badeutzazu importancia ain andico eguiteco, ceyaiti engañau zaben Mundu, Demonio, ta aragiiac; ezta importa, ceyaitic orainguino galdu guztiac berriz irabazteco demporan aguitcen zara, etzaitela desanimatu; guztia erremediatuco dozu, baldin len esan deutzudan Santuben exemploai jarraitcen badeutezu; onetarraco beardozu zure utz eguite guztien damutasun eguiazco bat artu, ez gueiago eguiteco asmu firmiaz: au da modu bacarra logratceco, guztiori aimberte desoatcen deutzubedan betico gloria. Amen.

FUNDACIÓN
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA
MAN 679